



IKASTETXEA • BIDAIDE FUNDAZIOA

KRISTAU ESKOLA

Amurrioko Virgen Niña Ikastetxeak Amaurre izena hartuko du

- **XXI. mendeko erronkei erantzuna eman eta hezkuntza proiektua indartzeko helburua duen gogoeta prozesu baten ostean hartu da izena aldatzeko erabakia.**
- **Edukiz eta esanahiez betetako izena da, ama eta haur. Ikastetxearen esentzia agerian uzten du eta garenaren isla da: ama, urre, aurre, haur, ur.**
- **Giza baloreek etapa berriaren zutarri nagusi izaten jarraituko dute**
- **Ikastetxea D ereduan barneratuko da, euskara eta gure ingurunearen aldeko apustu eginez.**
- **Halaber, ikastetxea munduan barrena ibiliko da, nazioartera salto eginez. Europako proiektu bati hasiera eman diogu, beste herrialdeetako ikastetxeekin elkarlanean: Finlandia, Irlanda, Austria eta Malta. Aldi berean, ingelesaren ikaskuntza indartuko da adin txikienetatik hasita.**

Abiadura handian etengabe aldatzen ari den mundu zabal batean bizi gara. Gure gizartea globala eta lokala da aldi berean. Anitza bere zentzurik zabalenean. Eta gure ikastetxe proiektuak testuinguru berri horietara egokitzea beharrezkotzat jotzen dugu, munduari aurre egiteko gai diren ikasleak prestatuta.

“Bidaide Fundazioa Amaurreren gisako ikastetxeen bidelagun bilakatzen da, etorkizunari modu onenean aurre egingo dioten pertsonak hazteko bidean. Alde batetik, beharrezko ezagutzak eta konpetentziak bereganatzen laguntzen diegu, XXI. mendeko mundu globalean moldatzeko gai diren pertsonak. Bestalde, eta bereziki, baloreen bitartez, bizi eta elkarbizi daitekeen mundu bat sortzeko prest dauden pertsonak hazita”, adierazi du Agustin Eizagirrek, Bidaide Fundazioko zuzendariak.

Bidaide Fundazioak, ikastetxeen entitate titular gisan, hezkuntza eredua indartu eta jarraitasuna ematen die ikuspegi gaurkotu bat eskainita. Ikastetxearen esparru garrantzitsuenetatik egiten da lan hau: berrikuntza pedagogikoa, baloreak, formazioa, komunikazioa eta kudeaketa.

Eta horretan dabilta Amurrion pasa den ikasturte hasieratik, 64 urteko zerbitzuaren ondoren, Virgen Niña Kongregazioko Ahizpek Amurrioko Virgen Niña Ikastetxeko zuzendaritza titularra utzi zutenetik Bidaide Fundazioaren esku.



IKASTETXEA • BIDAIDE FUNDAZIOA

KRISTAU ESKOLA

Hori horrela, aurreko ikasturtean, ikastetxeko zuzendaritza taldeak, Bidaide Fundazioarekin elkarlanean, gogoeta prozesu sakonean murgildu zen. Hausnarketa prozesuak, bere lehen fruituak eman ditu jada eta 2019-2020 ikasturtetik aurrera Amurrioko Virgen Niña ikastetxeak izen berria hartuko du: Amaurre. XXI. mendeko erronkei erantzuna emateko berritu den eredua. Beren esentzian sustraitua den eredua.

Etapak berria

“Ikastetxea Virgen Niña Kongregazioko Ahizpen eskutik iritsi zen Amurrion, herriari pertsona eta baloreak erdigunean zituen hezkuntza eredu propioa eskaintzeko. Gaitasunez haratago giza balioak oinarri dituen pertsonak hazi ditu urte luzez. Orain Amurrioko eta Amurriorentzat egindako lana eskertzeko momentua da”, jarraitu du Aldamak.

Duela urtebete Virgen Niña Kongregazioko Ahizpek Virgen Niña ikastetxeko zuzendaritza titularra Bidaide Fundazioaren esku utzi zuten. Une horretan proiektua berrikusteari ekin zioten, mundu zabaleko, Amurrioko, Aiaraldeko eta ikasleen beharretara egokitu nahian. “Errealitate horren aurrean bi galdera egin genizkion geure buruari: lehena, zer behar dute gure ikasleek munduari aurre egiteko? Eta, bigarrena, zer behar du munduak gure ikasleengatik guztiak bizi eta elkarbizi gaitzen?”, gehitu du.

“Munduan dagoen ziurgabetasuna kontuan hartuta, argi dugu gure hezkuntza proiektuak baloreak izan behar dituela oinarri, guztiei merezi digun mundu hobeago bat eraiki dezagun. Nor garen jakiteko eta guztiok lekua dugun gizarte bat sortzeko. Anitza, inklusiboa eta enpatikoa. Uste dugu hazten jarraitzeko eta gure ikasleak etorkizunerako prestatzeko eraldatzea beharrezkoa da. Garenetik mundua gelara ekarriz eta geletatik ikasleak mundura ateraz. Eta hori da Amaurre”.

Izen berriak orain arteko logika bera jarraitzen du, finean, ikastetxeak bere esentzia mantentzea beharrezkoa baita. “Edukiz eta esanahiez betetako izena da, ama (virgen) eta haur (niña). Gure hizkuntzan, euskaraz. Haratago, gainera, garenaren isla argia da: ama, urre, aurre, haur, ur. Amaurre. Gertu. Ikasleak, irakaslea eta gurasoak familia giroan. Etorkizunari orainetik aurre hartuz. Oinak Amurrioko baina begirada munduan.

Aro berri hau energiaz beteta hasten dugu, ilusioz, indarrez eta gure etorkizuna eraikitzeko gogo handiarekin. Ildo horretan, Amurrioko eraikitzen jarraitzeko gogo biziz gaude eta Amaurreko ateak zabalik ditu nahi duenak. Amaurrek ateak zabaltzen dizkio Amurrion,



IKASTETXEA • BIDAIDE FUNDAZIOA

KRISTAU ESKOLA

Aiaraldeari eta mundu zabalari. Guztiak besoak zabalik hartuko ditugu”, amaitu du Amaia Aldamak, ikastetxeko zuzendariak.

Pertsona eredugarriak haziz eta heziz giza balioetatik

Haur bakoitzak trebetasun bat du bere baitan. Etorkizun oparo bat. Esperantza bat. Guztia egiteko. Ikertzeko, probatzeko eta jakiteko. Helduok, beren egunerokoaren parte garen horiek, konpromiso sendo bat dugu, pertsona gisan hezteak. Bizitzen eta elkarbizitzen dakien pertsona bat hezteak.

Amurrioko Amaurre ikastetxeak besoak zabalik ditu, Aiaraldeko haurrak jaso eta gizartean eragingo duten pertsona eredugarriak hazteko. Balore akademikoak eta giza balioak eskuragarri jartzeko.

Amaurren hezkuntza proiektu zehatz batekin egiten da topo. Integratzailea. Ikasleak erdigunean dituen ereduak eta, aldi berean, aldaketarako motor dena egoera berrietara egokitzeak.

Gizartea eraldatu eta hobetzeko gizabanakoak hazten dira Amaurren. Autonomoak eta eleanitzak. Sortzaileak eta zintzoak. Ahaleginaren kulturen barneratuak. Biziak eta hezikidetzailerak. Konprometituak. Unibertsalak. Arduratsuak. Eragileak eta aktiboak. Ekintzaileak. Solidarioak eta enpatikoak.

Diskurtsoa: Amaurre

Amaurre amaren iturri gozoa da. Iturburua. Sorburua. Bizitzaren hasiera emankorra. Lehenbiziko pausoak. Lehenbiziko hitzak. Negarrak eta pozak. Amaren babesa eta errespetua. Altzo gozoa. Magala. Zabala.

Amaurre ura da. Munduan bizitza egon dadin premiazkoen zaigun lehengaia. Ura. Hau, hori eta hura elikatuko dituen ura. Bertakoa. Freskoa. Herriko iturri biziaren txorota. Gure jakintzarena eta historiarena. Pertsonaren sakoneko oinarriak piztuko dituenak.

Amaurre haurren eskola ere bada. Biharko neska-mutilak, gizon emakumeak, izango diren haurrak. Gizalegez, zintzotasunez, umiltasunez, zuzen eta harro haziko dituen zuhaixka gazteak.



IKASTETXEA • BIDAIDE FUNDAZIOA

KRISTAU ESKOLA

Amaurre gure urrea bilatzeko erreka da. Harri bitxiak galdu nahi ez dituen galbahea. Harri guztiak bitxiak zaizkigulako. Bakoitzak bere distira duelako. Denok kabitzen garen kabia. Denok elkarren bila gabiltzan eremua. Elkar aurkituko dugun lekua. Eta bereziki, norberak norbere burua askatasunez aurkitzeko gunea.

Amaurre elkarrengandik urre egotea da. Gertu. Ikasleak, irakasleak eta gurasoak familia giroan. Elkarri hitz eginez eta entzunez. Egoera bakoitzean erantzukizunez jokatzuz.

Amaurre bizitzari aurre egitea da. Etorkizunari orainetik aurre hartzea. Bizitzarako beharrezko tresnak izatea. Abiadura handian etengabe aldatzen ari den mundu zabal honetara moldatzeko prest egotea. Oinak Amurrion eta begirada munduan izatea. Dauden lekuan egonda, aniztasunetik komunitate egiteko konpromezua duten munduko herritarrak hezteak.

Amaurre. Ama. Aurre. Urre. Haur. Ur.

Amaurre gu gara. Zu zara.